2014

# JABETZE ESKOLA

## OTSAILA - MAIATZA
## FEBRERO - MAYO

PROGRAMA

di·da zure balioen marka

arrasateko jabetze eskola

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
EMAKUME SAILA

emakume txokoa

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua
Departamento de Deportes y Acción Exterior

ARGIBIDEAK

## EMAKUMEON JABETZEAZ….

Jabetzeak gure bizitzan autonomia izatea dakar, bizitzari aurre egiteko indarra eta konfiantza izatea, bizitzan aukera ezberdinak egiteko ahalmena izatea eta gizarte eraldaketan parte hartzea.

Aldaketa pertsonal eta kolektiboa dakarren prozesua litzateke, emakumeen eta gizonen arteko botere harremanen eraldaketa dakarrena. Prozesu hori gauzatzeko hainbat faktorek bat etorri behar dute: emakumeoi maila pertsonalean gertatzen zaiguna ulertzea; errealitatea eta testuingurua antzematea; eskubideak ezagutzea; informazioa eta baliabideak eskura izatea; geure ahalmenak lantzea; autonomia, konzientzia eta ahalmen kritikoa izatea.

Inork ezin du beste inor jabetu. Hala ere, erakundeek emakumeen eta emakume taldeen jabetze prozesuak susta ditzakete. Horixe da Arrasateko Jabetze Eskolak duen asmoa.

## ARGIBIDEAK:

- **IZENA EMATEKO EPEA:** otsailaren 3tik otsailak 7ra arte.
  Izena emateko ordutegia:
  Astelehenetik eguenera arte: goizean 10:30-13:30 eta arratsaldean 15:30- 18:30
  Egubakoitzean: goizean 10:00-14:00

- **HAURTZAINDEGI ZERBITZUA:** ikastaroetan parte hartzeko haurtzaindegia jarriko dugu, aldez aurretik abisatuz gero.

- **ARGIBIDE GEHIAGO EMAKUME TXOKOAN:**
  Telefonoa: 943 79 41 39
  emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net
  www.emakumetxokoa.com
  Jarraiguzu Facebook-en
  (Arrasateko Emakume Txokoa)

INFORMACIÓN

## SOBRE EL EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES…

El empoderamiento supone, autonomía para controlar nuestras vidas, fuerza y confianza para enfrentar la vida, derecho a elegir en la vida y participar en el cambio social.

Podemos definirlo como un proceso de cambio personal y colectivo que tiene como consecuencia y como fin la transformación de las relaciones de poder entre mujeres y hombres. Para que este proceso se dé deben confluir varios factores: la comprensión de lo que a las mujeres nos sucede a nivel personal; el conocimiento de la realidad y del contexto; el conocimiento de los derechos; el acceso a la información y a los recursos; el desarrollo de nuestras destrezas, una mayor autonomía, mayor concienciación y capacidad crítica.

Nadie empodera a nadie. Sin embargo, las instituciones pueden impulsar procesos de empoderamiento personal y colectivo de las mujeres o movimientos. Éste es precisamente el propósito de la Escuela de Empoderamiento de Arrasate.

## INFORMACIÓN:

- **PLAZO DE INSCRIPCIÓN:** del 3 de febrero al 7 de febrero.
  Horario para la inscripción:
  De lunes a jueves: mañanas 10:30-13:30 y tardes 15:30- 18:30
  Viernes: mañanas 10:00-14:00

- **SERVICIO DE GUARDERÍA:** las actividades contarán con un servicio gratuito de cuidado de niñas y niños, avisando con antelación.

- **MÁS INFORMACIÓN EN EMAKUME TXOKOA:**
  Teléfono: 943 79 41 39
  emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net
  www.emakumetxokoa.com
  Síguenos en Facebook
  (Arrasateko Emakume Txokoa)

je! arrasateko jabetze eskola

IKASTAROAK

## 1 MAITASUN ERROMANTIKOA?

**Irakaslea:** Pepa Bojó Ballester
**Noiz:** asteartetan (12 saio)
**Hasiera:** otsailaren 11n
**Ordutegia:** 18:00-20:00
**Hizkuntza:** gaztelaniaz
**Matrikula:** 32€/37€

*Maitasuna, mendeetan, era batez kontatu digute; amets egin dugu gizon eta emakume heroiekin, gainezka egiten duten emozioez betetako istorioekin…, Kolapsoaren edo estasiaren ertzean ez bagaude ez dakigu maitasuna den ala ez… Emakumearen irudiaren barnea oraindik amarrua duen maitasun ideia eta mitoz josita dago. Aztertu ditzagun…*

## 2 BIDEOGINTZA ESPRESIO BIDE

**Irakaslea:** Itziar Bastarrika Madinabeitia
**Noiz:** ostegunetan (12 saio)
**Hasiera:** otsailaren 13an
**Ordutegia:** 18:00-20:00
**Hizkuntza:** euskaraz
**Matrikula:** 32€/37€

*"Proiektua: norberak sentitzen duen eran iraupen laburreko bideo muntaia bat egitea da asmoa." Horretarako, lehenbizi hausnartu egingo dugu. Zerk egiten gaitu emakume? Zergatik ikusten gaituzte emakume? Emakume izatea zer da? Hortxe gogoetarako abiapuntua. Asmoa, ezagutza eta ulermen-prozesu aktibo baten barneratzea. Gaia mahai gainean dago... orain, eseri gaitezen haren bueltan.*

CURSOS

## 1 ¿AMOR ROMÁNTICO?

**Formadora:** Pepa Bojó Ballester
**Fechas:** martes (12 sesiones)
**Inicio:** 11 de febrero
**Horario:** 18:00-20:00
**Idioma:** castellano
**Matrícula:** 32€/37€

*Durante siglos el amor nos lo han contado de una manera, hemos soñado con héroes y heroinas, con historias llenas de emociones desbordantes…. Si no estamos al borde del colapso o el éxtasis no sabemos si es amor…..*
*El imaginario femenino todavía está plagado de ideas y mitos amorosos con trampa. Vayamos a revisarlos…*

## 2 EDICIÓN DE VIDEOS, MODO DE EXPRESIÓN

**Formadora:** Itziar Bastarrika Madinabeitia
**Fechas:** jueves (12 sesiones)
**Inicio:** 13 de febrero
**Horario:** 18:00-20:00
**Idioma:** euskera
**Matrícula:** 32€/37€

*"Proyecto: La intención es realizar un montaje de video de corta duración en la forma que una misma sienta".*
*Para ello, primero realizaremos una reflexión. ¿Qué nos ha hecho mujeres? ¿Por qué nos ven como mujeres? ¿Qué es ser mujer? Es el punto de partida para la reflexión. Interiorización del proyecto, del conocimiento y de un proceso activo de comprensión.*
*El tema está sobre la mesa… ahora, nos sentaremos a su alrededor.*

IKASTAROAK

## 3 FEMINISMOAK EZAGUTZEN II

**Ikastaro hau, 3 saioz osatua dago.**
Saioetan, edo saioren batean parte hartzeko aldez aurretik izena eman behar da.

**I) ABORTATZEKO ESKUBIDEA, 40 URTE ETA GERO. HONEK EZ DU ATZERA BUELTARIK**
**Otsailaren 26an,**
**18:00-20:00.**
**Doan**
**Saioa Iraola Urkiolak dinamizatua (euskaraz)**

*"Abortatzeko eskubidearen aldeko borroka, Euskal Herriko mugimendu feministaren sorreratik presente egon den borroka izan da. Elkartasun feministaz busti den borroka izarra izan da, mugimenduaren egituraketa ekarri duena, genero, klase eta jatorriaren gatazka azaleratu dituen borroka eremua izan da, emakumeen autogestioa, aldarria, desobedientzia eta irudimen amaigabea sortu dituena.  Bai Espainiako bai Frantziako estatuetan azken 40 urte hauetan aldaketa nabariak egon dira lege aldetik, eta feminista askori esker hobekuntza asko lortu dira. Baina ez da dena onera izan. Izan ere, PPk, Gallardon ministroaren eskutik, 40 urte atzera egin nahi duen lege proposamen bat martxan jarri du. Zer egin behar dugu 40 urte borrokatzen egon eta gero? Zein urraketa dakar honek emakumeon bizitzan? Nola saihets dezakegu?"*



CURSOS

## 3 PROFUNDIZANDO EN LOS FEMINISMOS II

**Este curso comprende 3 bloques.**
Para participar en el curso o el alguna de las sesiones es necesario apuntarse con antelación.

**I) DERECHO AL ABORTO. DESPUES DE 40 AÑOS ESTO NO TIENE VUELTA ATRÁS**
**26 de febrero,**
**18:00-20:00.**
**Gratis.**
**Dinamizado por**
**Saioa Iraola Urkiola (euskera)**

*"La lucha en favor del derecho al aborto es una lucha que ha estado presente desde el nacimiento del movimiento feminista. Ha sido la lucha estrella involucrada con la solidaridad feminista, la que ha aportado la estructura del movimiento, ha sido el ámbito de lucha que ha aflorado el conflicto de género, clase y origen, que ha generado la autogestión, el clamor, la desobediencia y la imaginación infinita.  Tanto en el estado español como en el francés durante estos últimos 40 años se han producido cambios significativos desde la ley, lográndose muchas mejoras gracias a muchas feministas. Pero no todo ha sido positivo. Puesto que el PP, de la mano del ministro Gallardón, ha puesta en marcha una propuesta de ley que pretende involucionar 40 años. ¿Qué vamos a hacer después de luchar durante 40 años? ¿Qué vulneración supone esto en la vida de nosotras las mujeres? ¿Cómo podemos evitarlo?"*

IKASTAROAK

## II) ZER DA TRANSFEMINISMOA?

**Martxoaren 26an, 18:00-20:00**
**Aurora Iturriotz Lopezek dinamizatua**
**(euskaraz)**

*Zergatik jarri diogu orain "trans" aurre izena feminismoari? Simone  Beauvoirrek, esan zuen "ez gara emakume jaiotzen, emakume izatera iristen gara", transfeminismotik hurrengo galdera luzatzen dugu, zer gertatzen da emakume izateari uko egiten diogunean? Transfeminismoa, mugimendu feministatik datorkigun azken astindu kritikoa da, besteak beste, emakumeak eta gizonak ez garela existitzen dio. Praktika politikaren erdigunean jartzen ditu bollerak, beltzak, migratuak, putak, transexualak, transgeneroak, intersexualak, aniztasun funtzionala duten pertsonak. Laburbilduz, iraultza feministaren subjektua zabaldu da.*

## III) EKONOMIA FEMINISTA

**Maiatzaren 21ean, 18:00-20:00**
**Yolanda Jubeto Ruizek dinamizatua**
**(gaztelaniaz)**

*Gaur egun, hedabideak direla eta, botere egiturek krisi ekonomiko batean gaudela sinestarazi digute. Baina krisi hau ez da gaurko gauza, eta ez da finantza krisi bat. "Zibilizazio Krisi" baten aurrean gaude, eta ez da 2008. urtean sortutako arazoa. XX. mendean gure gizarteek kapitalismo neoliberal, kolonial eta heterosexista batean oinarritutako egituretan dago Zibilizaio Krisi honen gakoa.*
*Tailer honetan, ikuspuntu feminista batetik, hausnarketa kritiko bat egingo diogu kapitalismo mota honetan oinarritzen den gizarteari, eta autodefentsa feminista egingo diogu kapitalismo heterosexista zorrotz honi.*

CURSOS

## II) ¿QUÉ ES EL TRANSFEMINISMO?

**26 de marzo, 18:00-20:00**
**Dinamizado por**
**Aurora Iturriotz Lopez (euskera)**

*¿Por qué el ponemos el prefijo "trans" al feminismo? Simone de Beauvoir señaló que "no nacemos mujer, que llegamos a ser mujer", desde el transfeminismo formulamos la siguiente pregunta, ¿qué pasa cuando renunciamos a ser mujer? El Transfeminismo es la última sacudida crítica que nos llega desde el movimiento feminista, entre otras, que las mujeres y hombres no existimos. Pone en el centro de la práctica política a bolleros, negras, emigrados, putas, transexuales, transgéneros, intersexuales, personas con diversidad funcional. Resumiendo, se extiende el sujeto de la revolución feminista.*

## III) ECONOMÍA FEMINISTA

**21 de mayo, 18:00-20:00**
**Dinamizado por Yolanda Jubeto Ruiz**
**(castellano)**

*A través de los medios de comunicación, las estructuras de poder nos hacen creer que nos encontramos dentro una crisis económica. Pero esta crisis no es un problema actual y no es una crisis financiera. Estamos ante una "Crisis de Civilización". La cuestión de esta crisis de civilización se encuentra en las estructuras en que nuestras sociedades se fundamentan durante el siglo XX en un capitalismo neoliberal, colonial y heterosexista.*
*Realizaremos una reflexión crítica, desde una perspectiva feminista, a la sociedad que se fundamenta en este tipo de capitalismo, y realizaremos una autodefensa feminista a este riguroso capitalismo heterosexista.*

IKASTAROAK

## 3 NOLA KOMUNIKATU ERAGINKORKI, EROSO SENTITUZ

**Irakaslea:** Nerea Redondo Otamendi
**Noiz:** astelehenetan (10 saio)
**Hasiera:** otsailaren 10ean
**Ordutegia:** 18:00-20:00
**Hizkuntza:** euskaraz
**Matrikula:** 32€/37€

*Zenbatetan esan edo pentsatu ohi dugu: Nik ez dakit komunikatzen, gure artean ez dago komunikaziorik, ez dut esan nahi dudana esaten, beste era batean adierazi nahi nuke baina ez zait ateratzen, nik ez dut hitzegiteko balio.....*

*Ikastaro honetan bakoitzaren komunikatzeko moduen inguruan hausnartzeko aukera edukiko dugu. Gutako bakoitza dagoeneko komunikatu egiten da, eta gure indarguneak eta ahulguneak zein diren identifikatuko dugu. Coaching metodologiaren bidez, gutako bakoitzak zein helbururekin, zertarako eta nola komunikatu nahi duen argitzeko baliabideak landuko ditugu.*

*Behin taldearen zein norbanakoaren abiapuntuak zehaztuta, komunikazio eraginkorrerako tresnak ezagutuko ditugu, ariketa teoriko eta praktikoen bidez.*
*Behin ikastaroa bukatuta, bakoitzak erabaki dezala zein abilezia erabiliko duen momentu eta egoera bakoitzaren aurrean, batez ere bere buruarekin erosoago komunika dadin.*

CURSOS

## 3 CÓMO COMUNICARNOS DE FORMA EFICIENTE, SINTIÉNDONOS CÓMODAS

**Formadora:** Nerea Redondo Otamendi
**Fechas:** lunes (10 sesiones)
**Inicio:** 10 de febrero
**Horario:** 18:00-20:00
**Idioma:** euskera
**Matrícula:** 32€/37€

*¿Cuántas veces lo hemos dicho o pensado…? Yo no sé comunicarme, entre nosotras no existe comunicación alguna, no digo lo que quiero decir, quisiera decirlo de otra forma pero no me sale, yo no valgo para dialogar…*

*En este curso tendremos la oportunidad de reflexionar en torno a las diferentes formas de comunicación de cada una de nosotras.*
*Cada una de nosotras ya nos comunicamos, e identificaremos nuestros puntos fuertes y nuestros puntos débiles.*
*Por medio de la metodología Coaching trabajaremos los recursos que nos clarificarán el objeto y el modo de comunicación de cada una de nosotras.*
*Concretados los puntos de partida tanto colectivos como individuales, tendremos conocimiento de los instrumentos existentes para una comunicación eficaz, con ejercicios teóricos y prácticos.*
*Una vez finalizado el curso, que cada una determine qué habilidad utilizará en cada momento y situación, sobre todo para comunicarse más cómodamente consigo misma.*

IKASTAROAK

## 4 GAZTELANIARA ITZULITAKO EUSKAL IDAZLEAK

**Irakaslea:** Josune Muñoz San José
**Noiz:** otsailaren 12an,martxoaren 12an, apirilaren 9an, maiatzaren 7an.
**Ordutegia:** 17:00-19:00
**Hizkuntza:** gaztelaniaz
**Matrikula:** 15€/17€

*Euskal argitaletxe batzuek eta estatuko argitaletxe batzuek interesa erakutsi dute esanguratsuenak diren euskal emakume idazleen obrak gaztelaniara itzultzeko; horrela, gaurko egunean horietako batzuek gaztelaniara itzulitako obrak dituzte, eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan lor ditzakegu.*

*Hala ere, gaztelaniaz bakarrik irakurtzen duten pertsona gehienek ez dakite hori eta bi hizkuntzen, kulturen eta literaturen artean dauden loturak ezartzeko aukera asko galtzen dituzte.*

*Proposamen honek nahi du, aitzindari gisa, zubiak eraiki, oro har Euskal Herrian eta bereziki Arrasaten elkarrekin bizi diren bi literaturen artean, elkar hobeto ezagutuz aukera berriak izateko elkarrekin berba egitean eta elkarrekin gaiak trukatzean.*



CURSOS

## 4 ESCRITORAS EUSKALDUNES TRADUCIDAS AL CASTELLANO

**Formadora:** Josuñe Muñoz San José
**Fechas:** 12 de febrero, 12 de marzo, 9 de abril, 7 de mayo
**Horario:** 17:00-19:00
**Idioma:** castellano
**Matrícula:** 15€/17€

*Algunas editoriales vascas y de ámbito nacional han ido mostrando interés en traducir al castellano la obra de las autoras vascas más representativas, de tal manera que en la actualidad muchas de ellas cuentan con traducciones al castellano, lo que permite el acceso en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca.*

*Sin embargo, la mayoría de las personas que tan sólo lee en castellano desconoce esta realidad y se pierden muchas posibilidades de establecer lazos entre ambas lenguas, culturas y literaturas.*

*Este propuesta intenta, de manera pionera, establecer puentes entre las dos literaturas que conviven en Euskal Herria en general y en Arrasate en particular, para que conociéndose mejor puedan crearse nuevas oportunidades para el diálogo y el intercambio.*

## 5 EMAKUMEOAK ETA EUSKAL LITERATURA

*Objektu literariotik subjektu literariorako bidean…*

**Irakaslea:** Josune Muñoz San José
**Noiz:** otsailaren 12an, martxoaren 12an, apirilaren 9an, maiatzaren 7an
**Ordutegia:** 19:00-21:00
**Hizkuntza:** euskeraz
**Matrikula:** 15€/17€

*XXI. mende arte itxaron behar izan dugu euskal emakumeok gure literaturan dagozkigun lekua eta garrantzia lortzen hasteko. Hasiera bat baino ez da, izan ere 2012koa da euskal kanon barruan sartzeko lehenengo parada, Arantza Urretabizkaia eta Zergaitik, Panpox? liburuaren bitartez.*

*Oro har, emakumeok ez dugu gure iragan urruneko ez eta hurbileko lan literarioa ezagutzen, baina, zorionez, egunean inoiz baino egile, izenburu eta lan gehiago dago, hiru idazle-belaunaldi lanean baitaude. Ikastaro honetan euskal emakumeok objektu literariotik subjektu literario izatera daraman bidea arakatu nahi dugu, euskal literatura hobeto irakurtzeko aukera emanez.*





## 5 LAS MUJERES Y LA LITERATURA

*Desde el objeto literario hacia el sujeto literario.*

**Formadora:** Josune Muñoz San José
**Fechas:** 12 de febrero, 12 de marzo, 9 de abril, 7 de mayo
**Horario:** 19:00-21:00
**Idioma:** euskera
**Matrícula:** 15€/17€

*Las mujeres vascas hemos tenido que esperar hasta el siglo XXI para lograr el lugar y la importancia que nos corresponde en nuestra literatura. Solamente es el principio, ya que el año 2012 es la primera para acceder dentro del canon vasco, con el libro Zergatik Panpox de la escritora vasca Arantza Urretabizkaia.*

*En general, las mujeres desconocemos el trabajo literario de nuestro pasado lejano y reciente, pero, afortunadamente, en la actualidad hay más escritoras, títulos y trabajos literarios que nunca, puesto que tenemos tres generaciones de escritoras. Durante este curso las mujeres pretendemos examinar y analizar el recorrido que nos lleva desde el objeto literario hasta el sujeto literario, otorgando la posibilidad de una mejora lectura de la literatura vasca.*

IKASTAROAK

## 6 HERRIGINTZA FEMINISMOTIK

**Irakasleak:** Joxemi Zumalabe Fundazioko bi kide: Olatz Dañobeitia Ceballos eta Marta Luxan Serrano
**Noiz:** martxoaren 20an, martxoaren 27an eta apirilaren 3an
**Ordutegia:** 17:30-20:30
**Hizkuntza:** euskaraz
**Matrikula:** 15€/17€



*Tailer honetan, norberaren esperientzia abiapuntua izanik, genero sistemak herrigintzaren eremuan nola eragiten duen kolektiboki hausnartzeko aukera izango dugu. Era berean, feminismoaren ekarpenak ardatz, parte-hartze politikoa eraldatzeko jorratu beharreko bideei buruzko gogoeta abiatu eta izandako esperientzien inguruko elkartrukea gauzatuko dugu.zien inguruko elkartrukea gauzatuko dugu.*

CURSOS

## 6 CONSTRUYENDO COMUNIDAD DESDE EL FEMINISMO

**Formadoras:** 2 compañeras de Joxemi Zumalabe Fundazioa, Olatz Dañobeitia Ceballos y Marta Luxan Serrano
**Fechas:** 20 de marzo, 27 de marzo y 3 de abril
**Horario:** 17:30-20:30
**Idioma:** euskera
**Matrícula:** 15€/17€

*En el presente taller, siendo el punto de partida la experiencia personal, tendremos la oportunidad de reflexionar colectivamente sobre la forma que incide el sistema de género en el ámbito de la política de desarrolo de país. Asimismo, siendo el centro las aportaciones del feminismo, iniciaremos la reflexión sobre las alternativas a desarrollar para la transformación de la participación política y llevaremos a cabo el intercambio relativo a las experiencias que hemos vivido.*

## 1 AUTODEFENTSA FEMINISTA

**Irakaslea:** Alaitz Mañes Payo
**Noiz:** apirilaren 5ean (10:00-14:00 eta 16:00-20:00) eta apirilaren 6an (10:00-14:00)
**Hizkuntza:** euskaraz
**Matrikula:** 15€/17€

*Emakumeon autodefentsa, teknika fisiko hutsak ikastea baino gehiago da. Ikastaroan ikasiko dugu indakeria matxista guztiei aurre egiteko baliabideez hornitzen. Horretarako, ezinbestekoa da aztertzea nondik datorren indarkeria matxista hori, bai eta emakumeek oinarrizko eskubideak eskuratzeko zer ondorio duen ere. Batez ere zalantzan jarri nahi dugu indarkeria sustraietatik bertatik, zelan eratuta dagoen eta zelan gertatzen den, eta hortik sustatu emakumeen jabetzea, indarkeria horri aurre egiteko.*





## 1 AUTODEFENSA FEMINISTA

**Formadora:** Alaitz Mañes Payo
**Fechas:** 5 de abril (10:00-14:00 y 16:00-20:00) y 6 de abril (10:00-14:00)
**Idioma:** euskera
**Matrícula:** 15€/17€

*La autodefensa de mujeres es un trabajo que abarca mucho más que el aprendizaje de meras técnicas físicas, puesto que la violencia sexista no solo comprende la violencia física. Por eso, en el curso aprenderemos a dotarnos de recursos para todos los tipos de violencia machista. Para ello se hace imprescindible el análisis del origen de la violencia sexista, así como su repercusión en la adquisición de los derechos más fundamentales por parte de las mujeres.*

*Fundamentalmente lo que pretenderemos es cuestionar la violencia desde sus raíces, su construcción y sus diferentes formas de presentación, para desde ahí, fomentar el empoderamiento de las mujeres frente a esta violencia.*

## 2 ANTZERKI TAILERRA: MISS YOS, MISS PEROS, MISS ATAQUES, MISS ALUBIAS…

**Irakaslea:** Belen Nevado Méndez
**Noiz:** otsailaren 22an (10:00-14:00eta16:00-20:00) eta otsailaren 23an (10:00-14:00)
**Hizkuntza:** gaztelaniaz
**Matrikula:** 15€/17€

*Gure unibertso emozionalaren baitan ditugu kontradikzioak, nahi dugu eta ez dugu nahi, adorea dugu eta ez dugu adorerik, halako diogu eta beste gauza bat egiten dugu. Barne gatazka azaldu daiteke norberaren hainbat pertsonaia edo bertsiotan, tailerraren bidez eta Zapalduen Antzerkia-k nahiz T. Foro-k ematen dizkigun dinamikak aplikatuz, askatasun gune bat sortuko dugu, eta gure barnean bizi diren "Miss" horiek askatuko ditugu.*



## 2 TALLER DE TEATRO: MISS YOS, MISS PEROS, MISS ATAQUES, MISS ALUBIAS….

**Formadora:** Belen Nevado Méndez
**Fechas:** 22 de febrero (10:00-14:00 y 16:00-20:00) y 23 de febrero (10:00-14:00)
**Idioma:** castellano
**Matrícula:** 15€/17€

*Las contradicciones forman parte de nuestro universo emocional, queremos y no queremos, tenemos valor y no lo tenemos, decimos tal cosa y hacemos otra diferente. El conflicto interno puede desplegarse en diferentes personajes o versiones de una misma, a través del taller y aplicando las diferentes dinámicas que nos ofrece tanto el Teatro de la Oprimida, como el T. Foro, crearemos un espacio de libertad, dando rienda suelta a las diferentes "Misses" que cohabitan en nuestro fuero interno.*

